

## **2004KO MAIATZAREN 17AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hamazazpia

**HILABETEA:** Maiatza

**URTEA:** Bi mila eta lau

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko hamarretan

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Bost (5)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Pello Garaialde Goikoetxea

Arantxa Aseginolaza Azkargorta

Imanol Aranburu Gutierrez

Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2004ko otsailaren 26ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

**2.- OBRA PROIEKTUA.** Makinetxe eremuan, Estanda ibaiaren gaineko GI 2632ko zubiaren proiektua onartzea.

Bildutakoek aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

Lehenik. Makinetxe eremuan, Estanda ibaiaren gaineko GI 2632ko zubiaren proiektua, 750.690,87 €ko aurrekontua duena.

Bigarren. Erabaki honen berri, Eusko Jaurlaritzako uren zuzendaritzari ematea.

**3.- LAGAPENA.** Garingo maisu-etxearen erabilera “MUÑOĞAIN GIZA ETA KULTURA ELKARTEARI” lagatzea.

Bildutakoek aho batez onartu dute, “MUÑOĞAIN GIZA ETA KULTURA ELKARTEA”rekin ondorengo hitzarmena sinatzea, Garingo maisu-etxearen erabilera, elkarte horri lagatzeko:

“Beasainen bi milako lauko maiatzaren .....

## **BILDURIK**

Alde batetik, FRANCISCO LASA ODRIOZOLA jauna 15.116.952 H NA duena eta Beasaingo Foru Kalean, 68an helbideratua, “MUÑOĞAIN GIZA ETA KULTURA ELKARTEA” elkartearen izenean.

Beste Alde batetik, PATXI PLAZAOLA MUGURUZA, Beasaingo Alkate-Lehendakaria. Ekintza hau burutzeko eskurantzza Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen duen Legearen 21,1b) artikulua eta azaroaren zortzian gobernu batzordeak egindako bileran hartutako erabakiak ematen dio.

## **AURREKINAK**

I- “MUÑOĞAIN GIZA ETA KULTURA ELKARTEA” izenarekin Garingo auzoan maisu-etxean helbidea duen elkarte eratu da. Elkarte hori Eusko Jaurlaritzako Elkarte Erregistroko lehenengo sekzioan inskribatu da AS/G10972/2004 zenbakiarekin eta IFK .....da.

Elkartearen helburua, auzoko soziokultural jarduerak antolatzea da, baina beti ere Udalaren babesarekin.

II- Udal inbentarioan, Udalaren izenean dator Garin auzoko maisu-etxearen eraikina, soziedadea eta lehengo soilaruan etxebizitza duena eta “MUÑOĞAIN GIZA ETA KULTURA ELKARTEA”k Udalari eskatu dio eraikin horren erabilera lagatzeko soziedadea aipatutako helburua betetzeko eta etxebizitza berriz, elkarteari ondo iruditzen zaionari alokatzeko, baina beti ere lehentasuna izango du ohiko etxebizitzarako behar duenak.

III- Bi aldeek elkarri kontratuak egiteko eta obligazioak beren gain hartzeko ahalmena, aitortzen diote eta, kontratu hau idatzi dute ondorengo

## **HITZBAKETEKIN**

**Lehenik.** Beasaingo Udalak “MUÑOĞAIN GIZA ETA KULTURA ELKARTEA”ri Garin auzoko maisu-etxe eraikinaren erabilera lagatzen dio hogeita bost urteko iraupenarekin, bigarren azalpenean adierazi den helburuetarako, denbora horretan Elkarte ez bada desegiten eta eragin duten inguruabarrak mantentzen badira.

Lagapenaren epea bukatzen denean, MUÑOĞAIN GIZA ETA KULTURA ELKARTEA”k, maisu-etxea Udalari egoera onean itzuliko dio.

**Bigarren.** Lagapena prekarioan egingo da eta dohanik.

**Hirugarren.** Ekipamendua, energia elektrikoa, ura, garbitasuna nahiz eraikinaren mantenimendua, “MUÑOĞAIN GIZA ETA KULTURA ELKARTEA”ren kontura izango dira.

**Laugarren.** Aldi berean “MUÑOĞAIN GIZA ETA KULTURA ELKARTEA”k, higiezin bera eta higiezinaren edukia aseguratzen polizaren agiria aurkeztuko du.

**Bosgarren.** Eraikina Udalaren eskura pasako da eta eta kalteordain-eskubiderik gabe pasa ere, premia handiagoko beharizan publikoetarako behar denean eta eta bertan egiten diren hobekuntzak Udalarentzat izango dira. Eskuratze-errekerimendua, sei hilabeteko aurrerapenarekin egingo da eta errekeritutako eskuragarritasuna ez betzea, atzerapen-egun bakoitzeko 30 €ko kanonarekin zigortua izango da eta elkarte desgaitua geldituko da etorkizunean beste lagapen batzu lortzeko.

**Seigarren.** Auzoko edozein bizilagunak eskubidea izango du bazkidea izateko.

**Zazpigarren.** . Hizkuntz Politikako irizpideak jarraituz, ekintzak eta publizitatea ere, euskeraz izaten saiatuko dira eta horrela ez denean, euskerak lehentasuna izango du, letraren tamaina, iragarkien denbora, e.a.

**Zortzigarren.** “MUÑOĞAIN GIZA ETA KULTURA ELKARTEA”, herriko toki eta bideetan publizitatea jartzeari buruzko ordenantza erregulatzaileria betetzeko konpromezua hartzen du, baimendutako tokietatik kanpo kartelak ipintzea debekatuta baitago.”

#### **4.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarrak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.